

## GIL 137 Murgiako zingira-fauna eta -flora



Izarra formazioaren ezpondaren itxura; aztarna fosil batzuk ageri dira. Landaretzak guztiz estaltzen ditu buztinak eta kareharriak.


### Kokapena

Arabako Natura Zientzien Museoa.

### GILaren deskribapen laburra

Goi Oligozeno-Miozenoko Izarra formazioa aintzira- edo zingira-sistema batean be-rezkoak diren buztin-material karedunez osatua dago. Eozeno-Oligozenoko tolestura alpetarraren ondorengo garaian, Murgiako diapiroaren erdialdeak kubeta —beharbada, endorreiko— gisa jokatu zuen, eta aukera eman zuen bere fazies buztintsu-gazikaretan aintzira- edo zingira-sistema hori gara zedin.

Unitate horren goialdea buztinez osatuta dago nagusiki, zeinetan jatorri oso goiztiarreko kareharri mikritikoen konkrezioak ageri baitira. Kareharri horietan, aintziretako fauna eta florako fosilak daude, bikain kontserbatuak; hau da, *konsevat lagerstätten* deritzona osatzen dute. Hala, hosto, intsektu, arrain eta karramarro fosilak daude, besteak beste, egitura biologikoak xehe-xehe gorde dituztenak; adibidez, arrainen digestio-aparatuak ikus daitezke. Badirudi diapiroaren material gazikarek aintzira- edo zingira-sistemaren kimismoan eragin zutela, zeren eta aipatutako arrainak behintzat nolabaiteko gazita-sun-maila onartzen duen familia batekoak baitira.



*Prolebias euskadiensis* nov. sp.; atal bigunak ongi kontserbatuak ageri dira.

Izarra formazioan berreskuratutako burrunzki baten naiadea. (ENRESaren *Patrimonio geológico de Asturias, Cantabria y País Vasco* liburutik lortutako argazkia).

Intsektuak zingira-sistemaren barruan eratzen diren bakterio-jatorrizko kare-konkrezioen gainean edo barruan daude. Azaldu diren intsektuen artean, odonatuak, lignikolak, termitak, antofiloak eta erleak daude, bai eta aintziraren eraginetik urrunxeago bizi ziren espezie batzuk ere. Badira landare-aztarnak ere; haiei esker, 30 taxon baino gehiago identifikatu dira. Paleoiurumenaren azterketak zehaztu du Behe Miozenoan arroak baldintza subtropikalak zituela. Aleak Arabako Natura Zientzien Museoan (Gasteiz) eta EHUko Zientzia eta Teknologia Fakultatean daude.

## Behatzeko punturik onena

Arabako Natura Zientzien Museoa, Gasteizen.

## Erlazionatutako GILak

- **Geografikoki:** GIL 70.
- **Gaiari dagokionez:** GIL 51, GIL 128, GIL 130.

## GIL-aren balorazioa

Balorazioa		Baxua	Ertaina	Altua	Oso altua
<b>Interes zientifikoa</b>	Geomorfologikoa				
	Hidrogeologikoa				
	Tektoniko/Estrukturala				
	Estratigrafikoa			●	
	Paleontologikoa				●
	Petrologikoa				
	Mineral-hobiak				
	Beste batzuk				
<b>Interes ekonomikoa (erauzketa)</b>			Iraganean	Potentziala	Martxan
<b>Interes kulturala:</b>					
<b>Oharrak:</b>	Gaur egun, Arabako Natura Zientzien Museoa (Gasteiz) eta EHUKo Zientzia eta Teknologia Fakultatean ari dira ikertzen Murgian bildutako fosilen bilduma.				

## Bibliografia espezifikoa

- López-Horgue, M. A. eta Hernández, J. M. 2003. "La cuenca terciaria continental del Diapiro de Murgia: la Formación Izarra (Oligoceno superior-Mioceno inferior, Cuenca Vasco-Cantábrica)". *Geogaceta* 33, 123-126.
- Ábalos, B., Alonso, N., Berrocal, T., Furundarena, A., Gorospe, I., Martínez-Escauriaza, G., Matxain, I. eta Sánchez-Lorda, M. E. 2003. "Análisis estructural de los surcos periféricos del diapiro de Murguía (Álava, Cuenca Vasco-Cantábrica)". *Geogaceta* 34, 7-10.
- Barrón, E., Hernández, J. M., López-Horgue, M. A. eta Alcalde-Olivares, C. 2006. "Palaeoecology, biostratigraphy and palaeoclimatology of the lacustrine fossiliferous beds of Izarra Formation (Lower Miocene, Basque-Cantabrian Basin, Álava province, Spain) based on palynological analysis". *Revista Española de Micropaleontología* 38 (2-3), 321-338.
- Gaudant, J. 2003. "«*Prolebias euskadensis* nov. Sp. », nouvelle espèce de poissons Cyprinodontidae apodes de l'Oligo-Miocène d'Izarra (province d'Álava, Espagne)". *Revista española de Paleontología* 18 (2), 171-178.